

HITZAURREA

Ez naizela korridazalea, apenas edukiko dut, nire kasuan, aitortu beharrik. Bereziki kontrarioa ere ez naiz, ordea, agnostikoa edo baino, nolabait esan,— berehala ulertuko da zer esanahi duen.

Orain, aparte bakoitza nola dabilen erlijio kontuan, kulturalki Europa zaharrean kristauak geratu gara. Renan—ek arrazoi bazuen behintzat, berdin berdin egon omen gindezkeen mithrikoak: Konstantino Kaiserrak debekatu egin zuelako eta administrazioaren erlijio ofizialtarako kristautasuna hobetsi zuelako izan ez balitz, Mithra—ren kultua izango omen bait zen Inperioan bere kisa goititu izango zena, eta europarrok mithratarrak bilakatu izango ginen.

Mithra—ren kultua K.o. II. mendean legio erromatarretan arras nagusitu zen eta indarrez hedatu zen legiook iristen ziren kolonia eta hiri bazter guztiara, *limes* germanikoraino Erdiko Europa—n eta Hadriano—ren hormaraino Britainia—n. Mithra—ren erlijio hori gizonentzakoa bakarrik zen, emakumeak ez ziren sartzen, eta legionarien artean errotu zen gehiena. Erlijio honen pisu soziala nolakoa zen —administrazioa eta armada: bata bestearen eskutik ibiltzen ziren Inperio batean— aisa pentsa daiteke. Abenduko 25a, eguzki berriaren festa, jai gorena urte guztian, orain Jesukristo—ren jaiotegun bezala ospatzen duguna, Mithra—ren jaioteguna zen, hari kendu zion eguna kalendarioan kristautasunak, hau ofiziala bilakatu zenean agintean. Eukaristia bat edo, ezagutzen zuen orobat bere modura. Eta bataio bat, batez ere, zezen—odolezkoa, *taurobolioa*, Iñaki Azkune—k 37—38 orrialdeetan aipatzen duen eran.

Mithra—ren misteriook leize—zuloetan ospatzen ziren. Eta leize—zulo horietan bizitzen dira, Barandiaran—enetik gogoratuko denez, euskal mitologiako zezen eta behi gorriak: leizezulo—n Lizartza—n, Iturrioz—ko leizean Ataunen, etab. Barandiaran—en interpretazioa zuzena balitz, zezen eta behi gorriok funtsean Mari bera genituzke, irudiokin antzaldatuta bere burua. Testuinguru kosmologiko sakratuan mugitzen gara nolnahi ere. Eta mito horietan, Mirande—k esan ohi zuenez, gure herriaren genioa espresatzen ei da. Mito horietan legoke esanda, euskaldunarentzat mundua zer den, eta nola ikusten duen paratuta munduan bere burua.

Baina zezenak ez dabilta euskal kosmologian bakarrik. Zezenaren kultua antzina antzinakoa dugu, ekialde zaharretik Erroma—ko Inperioraino (J. R. Conrad, *Le culte du taureau*, 1961). Artearen historiatic batik—bat, ezagunak egiten zaizkigu Apis jainkozkoaren errepresentazioak Egipto—n. Antzinako Iran—en badakigu, zezenaren hilketa errituala gauzeko liturgiaren erdigune zirrarakorra izaten zela. Mesopotamia—tik Egipto—ra, hortakoz, eguraldien jainkotasunei —landetako bizitzari— sakrifikatzeke animalia txitezkoena izan da zezena. Haghia Triádha—ko sarkofago famatuan ere, Kreta—n, zekor polit askoa ikusten da, lau hankak lotuta, opalmahai gainean, labana sartzeko prantatuta (J.R. Chadwick, *El mundo micenico*, 1985). J. R. Conrad—en eritzian, zezenaren kultu moduren bat, gizonak, Aurignac—aldiaz gero praktikatuko liguke. *Homo sapiens* bera bezain zaharra dela, esan genezake, hortakoz, *homo sapiens* horren zezenarekiko postura ehiztakor—deboziazko berezia. Eta erlazio horrek berezia dirudi gaur ere, besterik ez bada egunotan polemika sastar batek inguratzen duelako.

Bi gauza. Problema ez da, zezen-jokoa (jatorriz) euskalduna den ala espainola den. Lehenengo, izan ere: folklorea, literaturan, erlijioetan, mitologieta, ekonomian, jateko ohituretan, artean eta artisautzan, edonon egiten dugu zezenarekin topo. Giza ekintza mota guztietantsu. Intentsitate horrez gain, hainbat giza ihardunetan agertzea, zezenaren presentzia horrek hedadura geografikoa ere guztiz zabala du, gure ermu kultural guztia estaltzen bait du, Txina eta India-tik Siria eta Palestina-ra, Mediterraneo-ko harroa, kelten lurrak eta Iberia-raino.

Gaur kontrajarri egin ohi ditugun ekialde eta mendebalde baina, edo ebaki eta bata besteagandik berezi ohi ditugun nazioak eta Estatuak, mintzairak eta erlijioak baina sakonago, bada, beraz, gure historia kulturalera, hagitz barnagoko sinbolo bortitz unibertsal bat, bizitzaren sinboloa hain zuzen, indarrarena eta boterearena. Hor barren-barrenean, zezenaren deritzokogun sustrato batean, guztiok oraindik bat gara.

Horregatik, protestante, katoliko, mahomedano, etab., baina gure guztien lehenago eta barnagoko erlijiotzat hartu ahal izango litzateke, beharbada, zezenaren sinboloa. Euskaldun, espainol, etab., baina barnago eta lehenagoko batasun-elementu kultural eta gizatiar funtsezkotzat halaber. Eta, ametsetan, lehen gizonaren mundu-ikuskera orokor eta oinarritzotzat agian.

Ametz hutsak ere ez genituzke izango kontsiderazio moduok. Europa-ren arraptoak eta, hainbat mitotan dabilkigun zezenak, zer esanhai duen, ez da nire eginkizuna, argitzea, ez nekikeelako nola egin. Baina izan ditu eta baditu bere esanahiak, zalantza gabe, eta ezin interesgarriagoa irudituko litzateke, zehazki jakiterik izango bagenu, zer doi-doi adierazten duten. Zer egiten dute kolorezko zezen horiek Lascaux eta Altamira-ko harrian, Çatgal Hüyü-k eko zezen erraldoiaren freskoak Anatolia Zentralean? Zer kobrezko zezen totem sumeriar tentteak, hirugarren milurtekoa Kristo baino lehen, Museo Britanikoan? Zer dago Minotauro zemaikor hori labirintoko gela ezkutuan? Berdin, ez dakigu ondo zertan dabiltzan ipuin zaharretako gure zezen eta behi gorriak Euskal Herrietako leize barrenetan. Gure sustrai izpiritual guztietan zezenak ageri dira.

Suposa dezagun libertate pixka batekin, zezenaz mundu-ikuskera oinarritzotako bat adierazten dela. Zezen-jokoa "izpiritu kristauaren kontrarioa" dela, esaldiak, zentzu arriskuor berri bat ager liezaguke, orduan. (Jesukristo Mithra-ren aurka, berriz ere). Eta Moise-ren borroka biblikoa "urrezko zekorra"ren aurka su eta gar, litzateke, gero kristautasunean bokalduko den mundu-ikuskera baten borroka intolerante luzea bihurtuko, zezenaren mundu-ikuskera "pagano" eta "barbaro"aren aurka?

Ez da fantasiatzeke gusto hutsagatik, mundu-ikuskera oinarritzotako bat suposatzan badugu zezenarekin sinbolizatua. Ezer asmatzera sartu gabe, literatura vedikoan nahikoa argitsu dago hori: *Rig Veda*-ko Rudra zezen amorratu marrulari zerutarra, ahalmen kreatzailea da, haren hazi naharo gizenak lur guztia bait du ernaltzen. Eta *Atharva Veda*-k, Yahweh kreatzailerik ezagutzen ez badu, begira zer ezagutzen duen haren lekuan, behiari gorazarre-kantu honetan:

*Behia zerua da, behia lurra da,
behia Vishnú eta Prahapati da:
Sādhayaen eta vasnien egarria kendu du
esne jaitsiak.*

*(...) Harengan datza jainkozko ordenua
eta santutasuna eta kemena.*

*Behia da Jainkoak dituena biziarazten,
behia gizonak dituena biziarazten.*

*Behia da baden guztia,
eguzkiak kontenplazten duen guztia.*

Zer esan nahi du horrek? Munduari hasiera eman diona, ikusten ez duguna, zezenaren irudiarekin sinbolizatzen dela (behia/zezena, sinbolo bera da, kreaizio printzipio batberaren alde jasankorra eta ekinkorra). Zezen/behian sinbolizatzen da izate ororen eta sortze ororen printzipioa, bizitza ororen iturburua, ernalkortasuna, aberastasuna ("oparotasunaren adarra", "kornukopia"), potentzia.

Bai, mundu aberatsa, deskubritzen da zezenaren sinbolismo azpian, antzinate-mundu liluragarria. Baina hortxe hasten zaizkigu problemak ere. Haiek posible zuten oraindik zeruak zezenez eta behiz biztantea, zezen potente baten hodei-marruak entzutea ekaitzean (Sibiria-ko tribu batzuek oraindik ere entzun egiten dituzte, laku hondoetan, zezen horren marruak, ekaitza erasotzera doanean) eta haren hazi-auriz ikustea soro-zelaiak ernaltzen, ilgoraren zezen adarrak identifikatzea oskarbian zorrotz, argi-esne zabalez zurituta ilargi beteko gau barea, "esne-bide" izarrezko bat izartegian, etab. Baina gu ez kanpoan bizitzen gara, ez ilargiaren zikloak larriturik edo harriturik segitzen ditugu, ez udaberriko belaze eta loreen birbizteaz hunkitzen gara, ez zeru izarrari egoten gara beha-beha, kontenplazioan, barne ahots isilari jareginda. Ez gara bizi zezenak eta behiak funtsezko ondasun diren ekonomia batean. Gure errege eta erreginei zezen eta behi deitzea seguruenik zigortu egingo lukete justizia modernuko tribunalek. Hitz batean: gu ez gara haiek, haienak ez dira gure denborak.

Zezenak aipatzen direnean gaur, entzierroan eta korridan pentsatzen da. Edonola baloratzen direla ere, espektakulo hutsak baino "gehiago" direla horiek, gauza nabariegia da, h.d., arras beste zerbaít dira, espektakuloaren elementu batzuk badituztela ukatu gabe. (Duintasun zerbaitekin egindako liturgia guztiek izaten dute espektakulo apur bat). Berdin, kirola baino besterik dira, artea baino, balleta baino, sakrifizio erritual soila baino besterik, etab., eta hori dena ere badira nolabait, horixe bakarrik izan gabe. Zer besterik zehatz-mehatz, eta zer gehiago, horixe argitzen asmatzea litzateke hemen kontua. Zein historiaurreko arima bizi da, iratzartzen da pilpilka, zezen-joko zalearen golko-hosinean?

Denetarioak daude interpretazioak: zezenak indar eta grina sexual itsua erreprezentatzen badu, zezenaren bizkarrean Shiva zaldun ibiltzeak indar eta grina haien menderapena, izpiritualpena, adieraziko du. Zezen hau zuria izango da, orduan, eta gizartean zuzenbidea sinbolizatzen du, kosmoan haren guztiaren armonia unibertetsala, *dharma*. Hein horretan, C.G. Jung-en sinbolika analitikoaren arabera, zezenaren sakrifizioan, aberezko bere grina itsu primitiboak gaudituz eta bizitza izpiritual bakezko batean, konfliktu gehiagorik gabekoan, iniziatu nahiko luke gizonak. Korridazaletasuna,

hortakoz, "barneko piztia" akabatu nahi ezkutu eta ezinaitortu bat izango litzateke, ordeztapen erritual bat mediante bideratua: sakrifizioa norbere barruan ordeztapen kanpoan egiten da; jasan ordeztapen, espektakuloan kontenplatu egiten da; norberaren lekuan, toreroak iharduten du (eta garaitu) ikuslearen ordeztapenari: baina haren garaipena ikuslearena da; norbere barneko grinaren lekuan, azkenik, zezen gotor elegante bat da gaizki erabiltzen, penatzen, zigortzen, hildumatzen, zangoperatzen eta finean sakailatzen dena, beti ere zinez nagusi hemen zein den garbi utziz. Bere moduko ostiral santu bat hori ere: justiziamendu batena gabe, borroka baten simulakroa halere.

Ez dakit zenbat fidatu beharko den interpretazio moduotan. Ezin falta zitekeena ere ez bait da faltatzen gainera: Edipo-ren konplexuaren topikoa. Zezenak aita haserretua errepresentatuko luke eta ikusliar guztion aita garratz horretatik askatuko ginduzke toreroak hura plazan apalaraziz eta sarraskituz.

Dena dela, sakrifizio alderdi bat zezen-jokoan onartu nahi bada —onartu beharra legokeela ematen du— hobe izango dugu, ohizkoa baino sakrifizioaren beste kontzeptu bat hartu. Egon, ausaz badago denetik: sakrifizioaren espazio erritual hesitua, ekintzarako bezala prestaturik; oparia, sakrifikatzailea, eta fidelen komunitate debotoa begira; errituala: pase jakinak, posturak ere jakinak, toreroaren pausu sazerdotal estudiatua, argizko jantzi femeninoa, momentu gorenean matadorea sazerdotesa bat bihurtu behar duena zezenaren begiz-begi; odol isurketa, etab. Baina, bestalde, sakrifizio honetan, ostiral santu honetan, dena festa eta bizipozaren gainezkaldia da, eromena, sakrifizioak ez dauka ezer tetricorik, bihotza ez du erru sentimenduak hestu-larritzen, baina pozkidak eta garaipenak zabal irekitzen du: ezertan ez dirudi, kristautasunetik ezagutzen dugun sakrifizio ilunaren erakoa, erritoan erakusten diren eta sakrifikaldi jokoari lagun eginez komunitateak desarrolatzen dituen sentimenduei bagagozkie. Jaialdi eta askatasun pozezko ospaketa dionisiakoa dirudi gehiago.

Nolatan da posible, ordea, XX. gure mendu zibilizatuan, horrelakorik oraindik? Jendoste haten bistan eta atsegin haundiz, bizi-boterearen irudirik nobleena, dotoreena, maltratatu, umilatu, burlatu, porrokatu egiten da, musika eta sarraskizko alaitasun-uju eta odol-isurketazko, zaleek artea eta liturgia eta kritikoei basapiztakeria izugarria kontsideratu ohi duten bizitzaren eta heriotzaren drama ikaragarriko batean.

Ordea, gu jadanik eritegietan jaiotzen gara, ez gurasoen etxean eta ez ahaide eta senideek inguratutik, baina mediku eta erizainek: jaiotzaren gure esperientzian ez dago, andre baten bere baitan erne duen haziagatik odoletan haurraz "erditzea" (ezpata batez bezala), euskarak ederdi esaten duenez, etxea bera eta laguntzaile jendeen eskuak odolez betetzea, etab. Jaiotza eta odola bat: hazia eta odola, odola eta bizitza. Azkenean ere botikaz enpatxaturik eritegian hiltzen gara berriro. Bizitzatik aparte bezala daukagun espazio isolatu batean etortzen gara mundura eta joaten gara mundutik. Jaiotza eta heriotza ez direla, esanahi dut, familian eta txikitatik egiten ditugun bizitzako esperientzia oinarritzakoak, bizipen inmediatekoak, ez gizonaren jaiotza-heriotzak eta ez animalienak, jeneralean behintzat gure etxeetan animaliarik ere jaiotzen ez delako eta hil gutxiago.

Hori da bestea, hain zuzen: larre-kulturako gizonak —ehiztari, artzain, nekazariak— abereekin batera egiten zuen bere bizimodua munduan, eta bizitza borroka bait zen, animalienaganako haren postura, oraingo kaletarren oso bestelakoa zen derrigor.

Horregatik ez derrigor gizagabekoagoa: zukarrari ostiko bat ematen dion baserritarra, basapizti krudel inhumanoa iruditzen zaio, berak bat etxean mimatzen duen kaletar askori. Eta orain ez dit axola, baserritar hura ala kaletar hau den zinez krudelagoa, gizona ere animalia dela kontsideraziotik abiatzen bagara behinik-behin, gizonaren erlazioa ere, zakurraren ala zezenarenganako, animalien artekotasunean ikusi beharko bait da orduan. Berdin da orain. Oro har, nolana ere, gure posturak animaliekiko, aldatu egin direla eta ondorengoan are gehiago aldatuko direla, fakto soil bezala, balorazio eztabaidagarrietan eta humanismoaren printzipioetan sartu gabe, begien bistakoa dirudi.

Tartean odol-isurketarik baldin badago batez ere. Gaur oilo bat ere ez da jada etxean hiltzen; zer esanik ez, zekorrik edo azienda haundiagorik. Kultura arruntak eta higiene publikoak adina, psikologia sozialak eta legeriak, hiri-bizitzatik alden du eta hiltegiatiko ezkutura eramaten digute abel odolaren isurketa oro. Prozesu hori buelta ezinezkoa da.

Etab., etab. Gisa honetako oharrak egiten —kultura zenbat aldatu zaigun alegia— azkengabeki jarrai eta jarrai bait liteke. Beste bat eta nahikoa, bera: guretzat, haragia jateak ez du ezer berezirik adierazten eta ez du izaten batere zerikusirik animalia gure artean (etxean, edo auzoan, aldeko basoan) guretako bat gehiago bezala bizi izanarekin. Baina pentsa, baserritar pobre batek, goseteen familia mantentzeko, bere behi bat jan behar izaten badu, esaterako, zer gertatzen den. Iraniar mendi gorrietan eta Kreta batean, jende xumeak, egun seinale berezietan bakarrik edukitzen zuen haragia jateko aukera, sakrifizio egunetan adibidez, eta zezen baten sakrifizioa, zentzu honetan, iraultza txiki bat izaten zen herriska haietako ekonomia eta biziera komunalean. Diru truke erosi egiten denean ez bezala, sakrifizioko zezenaren okela, eduki egin den eta egunero ikusi eta hazi eta zaindu egin den, izen propio batekin deitu eta aipatu den geure-geure gizarateko elementu batena da, eta ez nolana hikoarena: herriskako gizonak eta zaharrak harrotzen, umeak eta emakumeak beldurtzen, gazteak erronkarako tentatzen zituen zezenik ederrenarena. Eta gure ondasunik bikainenaren galera den hori, egun batzuk bederen haragia jateko posibilitatea da etab., eta guzti hori sinbolismo sakratuz jantzita.

Ondo urrun bizi gara guzti horretatik, bizitzan — hori ere ukatzerik ez dago. Alferrik samar da honez gero zezenaren eta zezen-jokoaren arte paregabea gorai-patzea, haren esanahi zahar barrenkor sakonetan murgiltzea, berdingabeko sinbolismo kultural eta mitikaren metafisika altuak egitea ("intelektualek" horrelakoxe lanak erabiltzen dituzte orain): praktikan, eta kontzienteki behintzat, gutxi-gutxi batzuek bakarrik somatu ahal izango dute hori dena ("zezenketaren teologoak" bezala direnak). Baina horren eta horrelako edozeren guztiz aurka eragiten du denak gaur-egungo gure kultura honetan. Erljioei ere gertatzen zaiena da, bere sinbolismoen sentidua jendeak ez duela ulertzen eta bizitzen. Baina abereekiko gure posturari gagozkiola bereziki, abel babeserako elkarteen gizaratea da gure hau; "galtzeko arriskuan dagoen espeziearen urtea"k ospatzen dituen aroa; "aberearen eskubideen iraultzaren aroa", pixka bat ridikulizatuz esateko: Green Peace, etab. Urtero-urtero gure gainean kanpaina publiko berrien erasoak dauzkagunean, uso ehizearen aurka, ez dakit nongo fokakumeen alde; inguruan ezagutzen ditugun animalia bakarrak adiskide kuttun bezala edo familiako gisa ezagutzen ditugunean (ume ordeko, edo anai-arreba ordeko); animaliatxook ia kulturkide eta solaskide bezala tratatzen ditugunean gure erlazioetan — salbu, beharbada,

sardeskarekin jatera oraindik ez ditugula behartzen: alegia, errealtatean ere (gure barnean) gero eta gehiago Walt Disney baldin bada mundua zer den diseinatzen diguna bere txoriekin eta animaliekin, oso zaila da orduan, telebistan eta hezkuntzan txiki-txikitatik, biziera publikoan ondoren, prentsa-irratietan, politika ekologikoan, denean, erakutsi eta kultibatu behar izaten den sentsibilitate honekin, pikadore eta matadoreen justifikaziorik aurkitzea gero. Zer falta egiten ote dute, gainera, lan zikin horiek, toreo garbi batean.

Kontatzen da anekdota bezala, zezenei buruzko tertulietan Bartzelona-n artisten artean, iragan mendearen azkenetan, Rusiñol-ek bere jarrera honela agertzen omen zuela, —eta sentsibilitate gaurtarraren espresio egokia izan liteke: "zezenaren eta zaldiaren artean, ni zaldiaren alde nago; zezenaren eta toreroaren artean, zezenaren alde". Zenbaitek sentitzen du gaur horrelaxe? Eta hori toreoaren kontra egotea da azken finean.

Eta sentitzen dut horrelaxe esan beharra, baina gauzak horrela sentitzea, gauzak sentitzea da, sinboloak ez sentitzea; gure aldiaren pobrezimendu partikular baten seinale zalantza gabe. Baina, sentitzea finitu denean, sinboloa bera finitu da, ez da ezer.

Honekin ez da hemen zezenei buruz ezer erizten, ez on eta ez gaitz. Esaten da bakar-bakarrik, zezen-joko tradizionalaren inguruan problema handi bat dagoela. Korridak egun hainbat kritiko baldin badu, ez dago pentsatzerik, nano sentimental batzuk direla denak eta kito. Historia historia da, baina historia baino ez da gehiago. Beste aro eta kultur-molde batzuetan normal-normala zenak eta justifikaziorik behar izaten ez zuenak, oraingo sentsibilitatean txokatu egiten du agian eta justifikazioa esaktzen du. Kontzientzia sozialean konfliktu bat sortzen da, beraz. Eta konfliktu hori ez da gaintzen "sadiko hutsak dira zezenzaleok" esanez, edo "zergatik jaten duzue orduan haragirik?" osteratuz.

(Polemika orain askotan dabilen bezala, zezenzale erraz ager dakiguke, kulturalki bederen, inorentzat interesik batere gabeko seinorito estupido tradizionalista baten edo astapetro kirten baten antzeko. Gorabehera honetan ez bait dira ezer interesatzen inoren zaletasun partikularrak eta haietarako edozeinen eskubideak, partikularrak bezala. Tradizio kultural aberats baten jarraitun eta landuzale kontziente bezala, ordea, baluke zereginik eta interesik gizarte modernuan ere, bere eta besteon atseginerako. Halakoarentzat ezin interesgarriagoa izango da liburu hau. Bestetik berdín, korridak kriminaltzat eta zaleak beste gabe erotzat jotzen dituen kritikoak ere, ez digu funtsean ezer laguntzen fenomeno hori ulertzen, hortik hasi beharra bait dago, arazoak inondik-inora egintza badu. Baina itx dezagun parentesi hau).

Asko da, gizartearen balio sistemak eta sentsibilitateak aldatzen direna denborarekin. Gauzek egiten dutena gure inguruan, ez da, zerbait izan, baina zerbait sinifikatu. Eta aldatu egiten da, zer sinifikatzen duten (zer "diren"). Eta hor, antzinari ez, baina orainari begira, denak irekia dirudi berriro: hots, lehenago zer izan zen gabe, orain zezen-jokoa posible litzateke "espainola izatea" (espainolismoa sinifikatzea); basakeria eta sadismo hutsa izatea; ohitura makur batzuen beste sentidurik ez izatea (patologia soziala). Posible, bai: baina ezin esan derrigor horixe denik. Izan daiteke oraindik esaten den arte sublimea, sinbolo guztiz sakona... Apenas, ordea, Altxerri-n uroa marraztu zuenaren esperientzien eta bizipenen arte-espersiorik, sinbolorik... Oraingo arimaren

zerena, orduan? Has gaitezen, beraz, berriro zerotik.

Esanahia eta sinbolismoa aldatzen den eran, zezen-jokoaren forma ere historian aldatuz joaten da, eta aldez-beste. Ronda-ko plazan, toreo modernua hantxe jaiotzen zela, esplikatu nahi izaten diote turistari. Oraintxe bertan ere, alabaina, zezen-joko desberdinak dira korridak, entzierroak adargain-jauziak eta sokamuturrak esaterako, eta korridak berak diferenteak dira Arles-en eta Lisboa-n. Esku artean duzun liburuaren interesetako bat, ez txikiena —datu bilduma historiko itzela izateaz gain, adibidez—, "zezenak" gaiaren ugaritasuna eta zabaltasuna ebidentzian jartzea izango da. Hortixe abiatu beharra dago, eztabaidatzeko ezezik, apur bat ulertzeko "zezenketen" fenomenoak gizartearen eta historian. Zalantza gabe gizona era desberdin anitzetan harremandu da zezenarekin aroz-aro eta lekuz-leku. Odol-korrída ez da korrida bakarra, gutxiago zezen-joko bakarra. Are, "jokoa" zentzu asko lazoan hartzen badugu, esan dezagun gizonak zezena hil ezezen eta jan ezezik, buru gaineratik jauzi egin, alaiki toreatu, sakrifikatu eta adoratu ere egin izan duela. Historia gorabeheratsu luzea egin dute elkarrekin gizonak eta zezenak.

Historia misteriozko bat, azken finean: kapitulu interpretagaitza gizonaren barne-historia misteriozkoan. Hasi besterik ez dugu egin gizona barrutik ikasten. Orainak lehena, lehenak oraina laguntzen digu argitzen, biek beharbada geroa. Adibide bat: zer esanahi du, eta zenbat esanahi diferente izan ez ote du, Kreta-ko zezenak? Nolako esperientziak eta zer gertaera historiko modu egon litezke mitoaren azpian (Teseo, Herakle)? (Ik. R. Graves, *Los mitos griegos*, 1985, zenb. 98.1-12, 123.1 eta 129.1: horietan erreferentzia gehiago). Azkenean, ez gaude ziur erritokoak berak nola egiten zirenik ere. Mila bider ikusi dugun Kreta-ko jauzi hori bera zezenaren adar eta bizkar gaineratik (ik., liburu honetan 35. or., 4.7. irudia): nola egiten zen, zer esanahi zuen? Euskal irakurleari beharbada jakingarria gertatuko zaiona: kultura mikenetarraren ikerle haundi Chadwick-ek, irudi horren interpretazio tradizionalak arbuiatu zituenean, hain zuzen Lapurdiko euskal zezen-jokoan oinarritzen zuen bere proposapena (aip. lib., 25-26 or.: berak "el sur de Francia" dio noski). Joko hori, ez ote da edozein korrida bezain zezen-joko "jatorra" eta jatorragoa? "Debe haber sido un deporte emocionante — komentatzen du ikertzaile hark— con un serio riesgo para los competidores, pero confirma la impresión de los minoicos como pueblo civilizado, controlado, al mismo tiempo que no falto de coraje". Odolaren sinbolismoak ez du kabidarik, halere, ezertarako.

Nahitaez korrida eta orain bezalakoa izan behar ote du zezen-jokoak? Ezinbestekoak al ditu korridak zezenaren zaurketa pikaz, odol isurketa, heriotza ezpatatz? Ezinbestekoak behintzat ez: esan dugu, beti aldatuz joan dela zezen-jokoa, denbora zein lekuetan. XIX. mendean debekatu egin zen Espainian "zakurren lantzea" (Cosío), ez dakit zezenaren ala zakurraren kupidaz, eta lantzeak aldatuz eta birrarrautuz ez jarraitzeko, arrazoirik ez da inon ikusten. Zergatik hementxe hain kontserbadoreak? Ez ote dira zezenzaleak, ez kritikoak, protestarik zatatsuenak muntatu beharko lituzketenak?

Egia da, aitortu beharrekoa iruditzen zait, zezenak —subkontzientean bederen— bizitza adierazten duen heinean (sexuaren, indarraren, borrokaren konotazio guztiekin, etab.), gizonok eginda gauden bezala, bizitzaren sentimendua eta emozio larria, heriotzarekin konfrontean iristen dela bere goritasun dramatiko osora. Ez da hain emozio,

odolari larruan dizdizka dariola eguzkitan, eta zezenaren hilketari ezpataz arratsalde beroan, ukatu nahi edo ahal izango litzaiokeena. Baina korridazale batzuek egiten dute askotan inpresioa, ezpata-lantze horretako herio-larri emozioan dagoela zezen-jokoaren muina eta grazia guztia. Eta hori, neuri behintzat, ez dakit espainola esan, ala ilundegiko arima erdiarotiarren paroxismoa iruditzen zait, Aste Santuko prozesio batzuen antzera.

Zezenak auzitan daude. Eta ez da, *sp/leen* bategatik norbaitek auzitan jartzen dituelako, apropos. Egungo hezkuntza eta kultura eta sentsibilitate guztia da, nolabait zezenjokoaren zentzu kontrarioan desarroilatzen ari dena. Hori problema da (zaletasuna eta ikusleria gutxitzeak ala gehitzeak ez egiten eta ez desegiten duen problema: jite moralekoa bait da hori). Eta ez da zezenzaleen eta etsaien arteko problema bakarrik.

Liburu hau ez dago polemika horretatik idatzita (horregatixe interes hainbat gehiago du polemikari begira ere). Maitale batek idatzita bai. Ni neu eskeptiko nago, gerora nola desarroilatuko diren gauzak. (Zein politiko ausartuko litzateke, San Ferminetako entzierroan aldakuntzak eragitera, esate baterako, hipotesi batean munduko beharrezkoenak lirakeela, ikusita egonda ere?). Eskeptiko, baina ez interes gabe. Problema kultural bat daukagu hemen, herri-kantak edo dantzak baino ez tradizio eta interes eta esanahi gutxiagokoa, guztioi doakiguna da hori. Niretzat, bilaka zitekeen eta ez den, betiko galdua dugun Atlantida izpiritual baten hondarrak dauzkagu zezenaren mitoa eta erritoetan. Beste kontinente bat bezala da, lurralde birjina eta misteriozko signifikari arrotzez beteta. Gure arimako paisaietan altxatzen diren, noizpait izandako denboren arruinak.

Inaki Azkune-ri eskertzekoa, titulutik hasita, fenomenoaren zabaltasun hori erakustea da: izan ere, zezenek "gure baitan dituzten erro luze-ekutuak", antzinasunezkoak adina historikoki, sakontasunezkoak dira beharbada psikologikoki, "euskal arima" zaharraren barnean, behingoz Mirandere-*ren* maneran mintzatzeko; eta, edonola ere, Altxerri-*n* eta Santimamiñe-*n* hasitako euskal gizonaren jokoak zezenarekin, herri eta herrisketako kaleetan jarraitzen du oraindik. Zezenaren arazoa ez da inola ere korridara mugatzen: eta korrida bera ez da inola ere sakrifiziara mugatzen.

Badirudi, kultura primitiboetako gizonak, ilargiarekin asoziatzen zuela zezena (ik. 38. or. hementxe, 4.10 irudia) eta ilargia ernalmenarekin, bizitzaren erritmoarekin. Ilargi hura jainkosa zen, ordea. Zer orain, gizona ilargira bera joan eta geroko aroan? Jainkosa gabeko jainko geratu da zezena munduan.

Zezen-jokoek irauteko eta jarraitzeko nahikoa arrazoi eta hoberenak, beharbada interes komertzialak izango dira. Horrek ez du batere haien sentiduaren iraupena ziurtatzen. Denborak eta balio-sistemak, aldatu egiten dira. Hori badakite zaleek zein etsaiek, eta aplikatu egin beharko liekete zezenjokoei, sentidurik eta etorkizunik izan dezaten eta, aldez-beste, sentidua edukitzeko modukoak izan daitezten. Joko Olinpikoek ere, ez dute izango Grezia klasikoan zuten bera, baina sentidu osoa dute gaur ere.

Joxe Azurmendi